

# Musika

## Pil Pil

# Oharkabeen bada ere

Musikaren historian familia bereko kideez osatutako talde asko bihurtu dira ospetsu, eta beste batzuk ez dira ospetsu bihurtu mereziko luketen arren. Bigarren kategorian dago Pil Pil baxenabar laukotea. Hamar urtez zuzenekoari emanak, lehen diskoa kaleratu zuten duela hilabete gutxi.

### UNAI BREA

ASKI EZAGUNA DA orrialde hauetan Mixel Thikoipe idazlea. Ez hainbeste Mixel Thikoipe musikaria, pertsona bera izan arren. Badu, amikuztarrak, ibilbide luzea taula gainean; bera da Pil Pil taldearen sortzailea, eta arima dela esatea gehiegi izan badaiteke ere, laukotearen izpiritu santua bederen bada, haren hitz berak erabiltzearen. Txistea errazago ulertuko da beste hiru kideak aurkeztuta: Aletxandre Bordagarai, aita, Jojo Bordagarai, semea, eta Bernadette Bordagarai, alaba. Hirurak ere, Thikoiperen askaziak.

Zerbait du haizeak Euskal Herriko ipar-ekialdean, hainbeste kantari on emateko. Familia bereko lau ahots hauek, nire aburuz, nazioarteko edozein zirkuitutan lotsa gabe erakusteko modukoak dira, eta halere doidoi dira ezagunak Euskal Herrian. Salbuespena Jojo Bordagarai dateke, musikan ibilbide oparoa egin baitu Pil Pilez aparte, baina haren izena ere ez da sobera entzuna Ipar Euskal Herritik kanpo. Pena. Azkeneko aldiz Pil Pil zuzenean entzun nueneko pena bera. Durangoko zubian izan zen, azoka ondoko Plateruena tabernan, lau katu ginela entzule.

Ohituta nengoen Pil Pil gitarra soil batekin ikustera, eta arraro egin zitzaidan Durangon antolatu zuten parafernalia. Bateria, baxua, armonika... Rock, blues, trad-folk ukituak nonahi, *a cappella*zko aire tradizionalak ohiko lekuari eutsi bazioten ere, Aletxandre aitaren ahotik batik bat. “Betiko” Pil Pilekiko jauzia nabarmena zen, baina arrazoi sinplea zuen: taldeak bere lehen diskoaren (*Hegaldaka*) soinu bera eskaini nahi izan zigun Plateruengan bildutakooi. Pribilejioa izan zen gainera, ez baita erra-

za izango laukotea berriz ikustea David Usabiaga musikariak haientzat bildutako taldearekin batera kantatzen. Aurrekontu estuek beren lege zorrotza ezartzen dute. Hala aitortu zidan Mixel Thikoipek egun batzuk geroago, telefonoz.

Betiko soinueta itzuliko da Pil Pil, hortaz,

baina bidean *Hegaldaka* ale ederra utzi digutelarik, ea azkena ez den. Hamar urteko ibilbidea biltzen du diskoak, beren erreperitorioaren zati handia sartu dute bertan. Emaizta biziki eklektikoa da: Zuberoako kantu tradizionalak, zer esanik ez *a cappella* emanak; Estatu Batuetako doinu herrikoiak; rocka eta folka nahasten dituzten abesti arinak, modernoak esango genuke; eta azkenburu, *Zerriaren industria*, blues gordina Mattin Irigoienek idatzitako testu ironiko batekin, hiru Bordagaraietan semea denak maisutasunez kantatua.

Batetik bestera eramango zaitu *Hegaldaka* aditzeak, errusiar mendi batek bezala. Baina ezaugarri bi aurkituko dituzu etengabe diskoan, ezaugarri “transbertsalak”, modako hizkera erabiltzera. Bata, umorearen eta kritika sozialaren nahasketa bikaina, noiz biak batera, noiz bakoitza bere aldetik. Bestea, ahotsak. Eta ezinbestean, Bordagarai nebarrebak nabarmenezko tenorea iritsi zait, barka diezadatela taldeko beste kide biek. Niretzat, Jojorena da uneon Euskal Herrian dagoen gizonezko bizpahiru ahotsik onenetakoa, eta zuhurtziak aginduta ez naiz gehiago busti. Ez naiz ausartzen Bernadettez hainbeste esatera, Zuberoan emazte anonimo batek baino gehiegok hunkitu nauelako haren pare, baina... Biak elkarrekin entzutea, sekulako gozatua. Pil Pil entzutea, gozatu biderkatua. ■

